



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 23a

8. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, SISNA txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**

### **OSOKO ZUZENKETA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa. Proiektu hori 2020ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **OSOKO ZUZENKETA**

#### **NAVARRA SUMA**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, proiektua Gobernuari itzultzeko eskatzen duena.

Zioak: Nafarroako Gobernuak 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan proposatzen duen zerga- eta tributupolitika urrun dago Foru Erkidegoak dituen beharretatik, bai aurrekontuek xede duten ekitaldiari dagokionez bai, bereziki, epe ertaineko etorkizunerako.

Diru-sarreraren aldetik, proiektuak epelaburkeriazko planteamendua du eta dirua biltzeko irrika nabarmena duen tributupolitika bat proposatzen du, zeinak zalantzan jartzen baitu etorkizuneko diru-bilketarako ahalmena eta, horrenbestez, zerbitzu publikoak denboran zehar egokiro emateari eutsi ahal izateko moduko diru-sarreraren eskuagarritasuna.

Zergen arloan dugun autonomia zabala ekonomia- eta produkzio-jarduerarako lagungarria izanen den tributuekiko esparru bat eraikitzeko erabili ordez, proiektu honek betikotu egiten du pasa den legegintzaldian inposatutako fiskalitate astuna, egun gobernua gidatzen duen alderdiak hainbeste kritikaturikoa. Gainera, zikloaren une delikatu batean egiten du hori, hazkunde ekonomikoaren

desazelerazio-zantzuak agerikoak izaten hasten ari direnean eta, kezkarriagoa dena, langabeziaren murrizketak antza denez hausten zaila den zorua jo duenean. Eta ez dugu ahaztu behar hazkunde ahuleko egoera hauxe bera bizi dutela gure inguruko ekonomiek ere; hori dela eta, ezin dugu pentsatu ekonomia horiek Nafarroaren hazkundera bultzatuko dutenik.

PFEZa bezalako tributuetan funtsezko aldaketarik ez egiteak zama fiskal pisutsu eta ekitate gutxiak jartzen segitzen du Nafarroako klase ertainen bizkarrean, halako moduz non haien errenta erabilgarria gero eta txikiagoa baita, eta horrek beherazko zuzenketak eragiten ditu kontsumoan eta aurrezkiari; are gehiago, azken horren trataera fiskala ere batere pozgarria ez denean.

Enpresek azken legegintzaldian pairatu duten presio fiskal gero eta handiagoa ere ez da batere arindu. Horrekin lotuta, gure enpresekiko fiskalitatea gainerako erregioetako baina okerragoa izateak produkzio-ehundura murrizteko arrisku ziurra dakar, dela Nafarroan kokaturiko enpresentzat sortzen diren zailtasunengatik, dela hemen kokatzeko interesa duten enpresen balizko inbertsioari pizgarria kentzeagatik. Pizgarri fiskal negatiboen egoera honekin oztopo gehigarriak jartzen zaizkio kalitatezko enpleguaren sorkuntzari; hots, eraginkortasunik handieneko politika sozialtzat jo behar dugunari.

Gastuei dagokionez, proiektuari epelaburkeriakutsu nabarmena ere dario, eta laukoak aurreko legegintzaldian zehar aplikatutako politiken jarraikeria egiten du. Bada garrantzizko berrikuntza bat, eta da Gobernu berriak onetsitako egitura berria, zeina 13 departamentuk osatzen duten. Egituratzar horrek, legegintzaldi osorako dakarren gastu gehigarriaz gain, a priori eragotzi egiten du aurreko ekitaldietako aurrekontuekin zuzeneko alderaketak egitea.

Hala ere, behin departamentuak –eta, noski, aurrekontu-partidak– homogeneizatu ondoren,

aurkeztutako proiektua aurreko aurrekontuekin alderatzeko moduan gaude. Konklusioa garbia da: antzeko eta jarraikeriazko aurrekontuak dira; horrela, ba, ez diete konponbiderik ematen 2019an amaituriko legegintzaldian jorratu gabe utzitako eta sortutako arazoei.

Zehazki, proiektuak gastu arrunta handitzeko apustua egiten du, inbertsioaren aldean. Epelaburkeria horren erakusgarri agerikoena da Garamen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren partida, zeinaren zenbatekoa ehuneko 6 murriztu baita, eta hori oso deigarria da bi gertaera hauek kontuan hartzen baditugu: alde batetik, departamentu horrek aurreko lau urteetan pairatu zuen utzikeria, eta, bestetik, partida hau dela termino erlatiboetan gehien murriztu dena; izan ere, proiektuak ehuneko 6ko hazkundea aurreikusten du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Ez dago

gure erkidegoaren lehiakortasunaren aldeko etorkizunerako apusturik.

Eta halaxe adierazten dute beste datu batzuek. Hala, inbertsio errealetara aurrekontuaren hazkunde osoaren zati txiki bat (ehuneko 7) bideratzen da, eta inbertsio horien mailak oraindik ere oso urrun daude duela 10 urte zituztenetatik. Bestalde, langileria buruzko kapituluaren gastu-gehikuntzak hartzen du 2019ko aurrekontuaren eta orain eztabaidatuko den aurrekontu proiektuaren arteko 245 milioi euroko gehikuntzaren ia erdia. Horren adibide argiak daude; esaterako, sortu berri diren departamentu batzuetan aurrekontu-partiden transferentziak izan dira, baina jardun-esparrua handitu gabe. Gastuaren gehikuntza langile-egiturara bideratu da gehienbat.

Hori guztia dela-eta, arestian azaldutakoagatik, osoko zuzenketa hau aurkezten dugu, eta aurrekontuak Gobernuari itzultzeko eskatzen dugu.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-19/PES-00111), "informazioa nahi baitu Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitateari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Nafarroako Gobernua espetxe-osasunaren transferentziari azken ukituak ematen ari zaizkio, hainbat departamentuk publikoki adierazi izan duten bezala. Hori ez da eragozpena izan urte hauetan Nafarroako Gobernuko departamentu batzuek, tartean Osasunekoak, hainbat zerbitzu eta arreta eskaini izan dizkietelako presoei, egungo

arau-esparruan osasungintzarako sarbide unibertsal eta ekitatiboa bermatzeko dauden aukeren barruan.

Nafarroako Ospitaleguneko Sarbide Murriztuko Unitatearen testuinguruan, jakinarazi behar dizugu plan funtzionala jada idatzita dagoela baina proiektu arkitektonikoa egiteke dagoela; azken hori egitea, ordea, Espetxeetako Zuzendaritzari dagokio.

Unitatea Nafarroako Ospitalegunean dago. Osasun-arreta ospitaleko beste edozein gelatan ematen den bera izanen da, pazientearen premietan zentratuta. Gune espezifiko bat prestatzea baino ez du esan nahi, ospitaleratzean poliziazaintza behar duten eriei arreta eman ahal izateko, segurtasun-beharrak eta osasun-laguntza bateragarri eginez.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzukoak izanen dira langileak, eta ezartzen diren segurtasun-prozedurak direla-eta prestakuntza eman beharko zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

## **Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-19/PES-00112). Honako hau galdetu du: Zein da une honetan egoera? Noiz berrantolatuko da Mendigorria-Garesko osasun barrutia?. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

2015ean, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak desoreka bat ikusi zuen lan-kargen banaketan, eta, ondorioz, osasun eskualde oinarrizkoa berrantolatzeko proposamena egin zuen. Desoreka hori kupoei esleitutako herritar-kopuruan zegoen diferentziagatik eta kupoetako batek artatu behar zuen eremuaren sakabanatze geografiko garrantzitsuagatik gertatu zen.

Urte hauetan zehar, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak hainbat berrantolaketa-eredu planteatu ditu. Hala ere, taldearekin izandako bileretan eta eskualdeko osasun-kontseiluetan, zuzendariordetzak egiaztatu du iritzi diferentzia handia dagoela landa-eremu baten berezko zailtasunen ondorioz, eta, batez ere, Garesko egungo osasun etxearen espazio-zailtasunen ondorioz, horiek izugarri zailtzen baitituzte berrantolaketa

posibleak, profesionalak kontsultak partekatu behar izaten baitituzte.

Osasun eskualde oinarrizko profesionalekin aurtengo irailaren 20an egindako bilkuran, behin betiko erabaki bat hartzeko xedez, berriz ere errefusatu dira aurkeztutako ereduak, eta taldeko zuzendaritzak, berrantolaketa globalarekiko desadostasuna jakinarazteaz gain, profesional gehienek berrantolaketa partzialari dioten errezeloa ere jakinarazi digu.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaile-tzaren ustez, erakundeak funtziona dezan, oinarrizko zutabeetako bat profesionalak erabakiak hartzerakoan parte hartzea da, osasun etxearen funtzionamendu egokirako hain beharrezkoa den lan-giroa kaltetu gabe. Horregatik, elkar ulertze hori ahalbidetuko lukeen elkarrizketa izaten saiatu gara uneoro.

Eredu berri bat ezartzeko profesionalak helarazitako zailtasunetako bat epe laburrean konpon daiteke partzialki, osasun-kontsulta berri baterako espazio bat ezarriz. Gai hori lantzen ari da Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaile-tzaren, eta behin betiko konponduko da osasun etxe berria eraikitzen denean. Espero da hori legegintzaldi honetan zehar egitea.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaile-tzak badaki zailtasun handiak daudela, baina baita epe laburrean berrantolaketa bat egin behar dela ere, lan-kargak orekatzeko eta oinarrizko eskualdeko biztanle guztien arretaren kalitatea hobetzeko. Horretarako, antolaketa-eredu berri bat ezartzeko asmoa du 2020. urteko lehen hiru hilabeteetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

## **Galdera, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du Eslabako Santa Criz aztarnategiari buruz (10-19/PES-00113) Hona hemen Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Zertan da Eslabako udalerriko Santa Criz aztarnategiak ukitutako finketan abiarazitako desjabetzeko prozedura?

2015eko maiatzaren 22an, Eslabako Udalak desjabetze-prozedurak ukitutako ondasun eta eskubideen zerranda onetsi zuen. Ukitutako jabeek alegazioak aurkeztu zituzten, zeinak Eslabako Udalak ezetsi baitzituen 2015eko urriaren 30eko erabakiaren bidez. Erabaki horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuten Nafarroako Administrazio Auzitegian (15-03499). Auzitegiak 2016ko apirilaren 1ean, 920. ebazpenaren bidez, ezetsi egin zuen gora jotzeko errekurtoa eta Udalaren aipatutako erabakiak balio gabetu zituen.

Zenbatean ezarri zen lursail horien balio justua?

Balorazioa 29.508,73 eurokoa izan zen (30.940,72 metro koadro 0,9083 euroko prezioan,% 5eko afekzio-saria aplikatuta).

Gobernuak ba al du asmorik desjabetzeko beste prozedurarik abiatzeko egungo aztarnategiaren ondoko lursailetan?

Gaur egun, Foru Komunitateko Administrazioaren balizko desjabetzeak apirilaren 1eko 920/2016 Ebazpenean Udalak izapidetutako desjabetze-prozesuaren aurka Nafarroako Administrazio Auzitegiak jarri zituen eragozpen berberak dauzka, ondasuna desjabetzeko legez eskatutako interes sozialeko justifikazio-arrazoirik ez zegoela ikusi baitzuen: "suntsitze- edo narriatze-arriskua, edo dauzkan balioekin" (kultur ondasunarena) "bateragarria ez den erabilera". Ebazpen horretan adierazten denez, "ez da frogatu, eta ez da saiatu ere egin, aipatutako proiektua ezin denik gauzatu, hiri erromatar horretako hondakinak kokatuta dauden finka osoa desjabetzen ez bada, eta are gutxiago lurzatiaren jabeak bere jabetzako lurzatian arkeologia-lanak egitea nolabait kaltetu, eragotzi edo kaltetu duenik, ez eta 14/2005 Foru Legean aurreikusitako babes-erregimenaren ezarpena (deklaratzen den ondasun-motaren arabera) proiektuan aurreikusitako lanak behar bezala burutzeko nahikoa ez denik ere".

Hau da, desjabetze-prozedura "lan arkeologikoak egitea nolabait kaltetu, eragotzi edo kaltetu denean" baizik ezin da hasi. Kontuan hartuta orain arte ez dela horrelako egoerarik gertatu, ez da bidezkoa Foru Administrazioak desjabetze-prozedura hastea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19-PES-00116 idatzizko galdera aurkeztu du.

Horren bidez “Informazioa eskatzen du itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruz”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Hil bakoitzaren 10erako, Departamentuak itxarote-zerrenden txostena edukitzen du.

Departamentuak ez du bere egungo dinamika aldatzeko asmorik.

Departamentuak ez du itxarote-zerrendei buruzko txostena Osasun Atarian jartzeko asmorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19-PES-00117 idatzizko galdera aurkeztu du.

Horren bidez “Informazioa eskatzen du hileroko aginte koadroari buruz”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Hil bakoitzaren 25erako, Departamentuak aginte koadroa edukitzen du.

Departamentuak ez du bere egungo dinamika aldatzeko asmorik.

Departamentuak ez du aginte koadroa Osasun Atarian jartzeko asmorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## **Galdera, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari andrea . Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19-PES-00118 idatzizko galdera aurkeztu du. Horren bidez "Informazioa eskatzen du Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruz". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

2019ko apirilaren 1ean, profesionalen berrantolaketa egin zen Erriberriko Osasun Etxean; hala, Tafallako Larrialdi Zerbitzuko sendagileek 20:00etatik aurrera Erriberriko oinarritzko osasun-eremuko biztanleak artatzen dituzte.

Uztailaren 1ean ere, erizaintzako arreta, 20:00etatik 08:00etarakoa, Tafallako larrialdietako zerbitzuak ematen die Erriberriko osasun eskualde oinarritzko herritarrei.

Une honetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak ez du Erriberriko Etengabeko Arretako Gunea gaueko ordutegian irekitzeko asmorik.

Etengabeko arretako guneak berrantolatzea Osasuneko kontseilariak Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dion etengabeko eta premiazko arretaren proposamenaren atal bat izanen da. Une honetan, ezin dugu baieztatu aipatutako antolamenduak etengabeko arretako guneren bat gaueko ordutegian ixtea jasoko duen ala ez, eta hori, nolana ere, plangintza-prozesu egokiaren atal bat izanen da.

Aurreko puntuan adierazi bezala, Osasun Departamentuak arreta jarraitua eta urgentea berrantolatzeko proposamen bat aurkeztuko dio Parlamentuari. Proposamen horrek lehentasuna emanen dio mendeko larrialdiei arreta egokia emateari, eta bertan planteatuko da arreta hori hobetzeko egokientzat jotzen diren baliabide-antolaketa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## Galdera, SISNA txostenari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, SISNA txostenari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19- PES-00119 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez “informazioa eskatzen baitu hilero-

ko SISNAri buruz”. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Hil bakoitzaren 25erako, Departamentuak SISNA txostena edukitzen du.

Departamentuak ez du bere egungo dinamika aldatzeko asmorik.

Departamentuak ez du SISNA txostena Osasun Atarian jartzeko asmorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19-PES-00120 idatzizko galdera aurkeztu du. Horren bidez “Informazioa eskatzen du kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatzeko kontingentzia-planari buruz”. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1. Osasun Departamentuak zer kontingentzia plan programatu du kontsultetako itxarote-zerrenda kontrolatzeko, ikusita zerrendak azken 15 hilabeteotan okerrera egin duela? Planean jaso al da kirurgiako itxarote-zerrenda eta proba osagarrien itxarote-zerrenda kontrolatzeko neurririk?

### KONTSULTAK.

#### • Nafarroako Ospitalegunea.

Honako espezialitate hauetan planteatzen da kontsultazio-jarduera/jarduera berezia:

Kardiologia

Kardiologia Pediatrikoa

Digestiboa

ORL

Dermatologia

Errehabilitazioa eta errakisa

Kirurgia orokorra

Kirurgia baskularra

Minaren unitateko

Neurologia

Erreumatologia

Itxarote-zerrendari buruzko programa abian dago honako hauetan:

Kardiologia

Neurologia

Errehabilitazioa I eta II kontsultak, eta Ubarmin

Pneumologia

Angiologia eta Kirurgia Baskularra

#### • **Reina Sofía Ospitalea**

Honako espezialitate hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Aurpegi-masailetak kirurgia

Kardiologian.

Kirurgia orokorra

Digestiboa

Oftalmologia

Errakisa eta errehabilitazioa

Traumatologia.

Dermatologia itundua

Pediatria

Itxarote-zerrendari buruzko programa abian dago honako hauetan

Traumako kontsultak

Errehabilitazioko eta Errakiseko kontsulta

Dermatologiako kontsultak

Kardiologia eta Ekokardiogramak

Otorrino

Urologia

Neurofisiologia

Pneumologia

Erradiologia

Traumako ebakuntza-gela

Urologiako ebakuntza-gela

Mikrobiologia eta Hematologia

Aurpegi-masailetakoa

Digestio-aparatuko kontsulta

#### • **García Orcoyen Ospitalea**

Honako espezialitate hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Errehabilitazioa eta errakisa

Dermatologia

Digestiboa

Kardiologia

ORL

#### • **Osasun Mentala**

Honako osasun mentaleko zentro hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Lizarrako osasun mentaleko zentroa

Antsoingo osasun mentaleko zentroa

Burlatako osasun mentaleko zentroa

Buztintxuriko osasun mentaleko zentroa

Donibaneko osasun mentaleko zentroa

Arrosadiako osasun mentaleko zentroa

#### **EBAKUNTZA KIRURGIKOAK.**

##### • **Nafarroako Ospitalegunea**

Honako espezialitate hauetan planteatzen da jarduera berezia:

Kirurgia txikia

Basektomiak

Itxarote-zerrendari buruzko programa abian dago honako hauetan:

Anestesia eta bizkortzea

Ebakuntza-gela orokorra, ebakuntza-gelak

Ituntzea:

Bermeei buruzko legetik kanpo dagoen kirurgia, batez ere abdomeneko paretarena

##### • **Reina Sofía Ospitalea**

Itxarote-zerrendari buruzko programa abian dago honako hauetan

Traumako ebakuntza-gela

Urologiako ebakuntza-gela

Iragazketa glomerularra behar duten gaixoen-tzako traumatologiako ebakuntzen ituna

#### **PROBA OSAGARRIAK ETA PROZEDURAK.**

##### • **Nafarroako Ospitalegunea**

Honako proba/prozedura hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Kolonoskopiak.

Ekokardiograma

Erradiologia

Neurofisiologia

Hemodinamika

##### • **Reina Sofía Ospitalea**

Honako proba/prozedura hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Neurofisiologia

Erradiologia

• **García Orcoyen Ospitalea**

Honako proba/prozedura hauetan planteatzen da konpentsazio-jarduera/jarduera berezia:

Erradiologia

Kolonoskopiak

Esku hartzeko terapiak

Infiltrazioak

2. Zer partidaren kargura finantzatu dira plan horretako "aparteko lanaldiak"?

4. Zer partidaren kargura finantzatu dira plan horretako "lanaldi-luzapenak"?

2. eta 4. puntuei batera erantzunen diegu.

Kontratazioak badira hurrengo partideetara jo beharra dago:

543000 52200 1220 312302 Itxarotzerrendarako kontrataturiko aldi baterako langileen ordainsariak

545000 52400 1220 312302 Itxarotzerrendarako kontrataturiko aldi baterako langileen ordainsariak

546000 52500 1220 312302 Itxarotzerrendarako kontrataturiko aldi baterako langileen ordainsariak

Lanaldi osagarriak badira: (lanaldi bereziak eta lanaldi-luzatzeak)

543000 52200 1710 312300 Produktibitate-osagarria

545000 52400 1710 312300 Produktibitate-osagarria

546000 52500 1710 312300 Produktibitate-osagarria

(Ohar argigarria: 543000 proiektua Nafarroako Ospitaleguneari dagokio, 545000, berriz, proiektua Tuterako Ospitaleari eta 546000 proiektua, azkenik, Lizarrako Ospitaleari)

3. Zer partidaren kargura finantzatu dira plan horretako "konpentsazio-lanaldiak"?

Kompentsazio-lanaldiak gaur egun halakotzat esleituta ez dagoen eredu funtzional bati dagozkio.

5. Parlamentari naizen honek jakin nahi dut zein den honako kontzeptu hauek direla-eta urtarrilaren 1etik urriaren 30era bitarte metatutako gastu erreala eta zer partidarekin finantzatu diren gastu horiek: aparteko lanaldiak, autoituntzeak, konpentsazio-lanaldiak eta lanaldi-luzapenak.

Informazio hori urte amaieratik aurrera osatuko da, 2019ko ekitaldi osoa ixten denean; beraz, orduan izanen dugu idatzizko galdera honetan eskatzen den dokumentazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: M<sup>a</sup> Santos Induráin Orduna

